

liburuak, trukean



barrenet 4. ikastunitatea

2. maila

ikaslearena

300 pta.

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Kudeaketa: **Joanba Bergara** (HABEko Prestakuntza arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak: **Anabel Alegria** (Leioako Udal Euskaltegia)
Josune Aranguren (Muskizko Udal Euskaltegia)
Joxe Manuel Goenaga (Santurtziko Udal Euskaltegia)
Errealizazio didaktikoa: **Esther Isasa** (HABEko teknikaria)

© HABE 1999. ISBN 84-86968-70-4

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkie Enkarterrietako, Leioa, Muskiz eta Santurtziko Udal Euskaltegi eta Udalei materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duten borondateagatik.

Halaber esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua eta maketazioa: **Tita Lorenz** eta **Marisa Mantxola** • Marrazkiak: **Marisa Mantxola**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Euskal Telebista:

Bertatik Bertara, Tolosan egindako kale-inkesta

Lagun artean: irakurtzaletasuna mahaingurua

Noizean behin, Jaime Otamendi, Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruza. 96-04-24

Euskaldunon Egunkaria:

Erabat puztu gabeko puxika. Euskaldunon Egunkaria 98-07-25

Gaztelumendi, Patxi. Jabier Muguruza. Barkatu, ama. Musika. Euskaldunon Egunkaria. 96-05-02

Iban, A.; Zabala, J.L. Klasiko ahaztezin baten urteurrena. Euskaldunon Egunkaria. 98-07-25

Atxaga, B. Obabakoak. Erein. 345-352.orr

Atxaga, B. 1996 Nueva Etiopia. El europeo

Mazisi Okeita Denbelek abestiko margoak: Jose Luis Zumeta.

liburuak, trukean

barrenet 4. ikastunitatea

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

2. maila

ikaslearena

AURKIBIDEA

1. Sarrera

- 1. Lan-egitasmoa **6**
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea **7**

2. Atzak

- A Ataza:** Irakurtzaletasuna **8**
- B Ataza:** Literatur liburuaren mailegu-zerbitzua martxan **13**

3. Eranskinak

- 1. Autoebaluazio-orria **16**

1.

LAN-EGITASMOA

Ikastunitate honetan, irakurtzaletasunaren inguruko gogoeta egingo dugu. Horretarako zure irakurtzeko ohiturak eta irakurle-
-profilaren ezaugarriak aztertuko ditugu.

Horrez gain, ulertzeko dituzun zailtasunak eta beroriei aurre egiteko estrategiez ere jardungo dugu. Azkenean, eleberrien irakurketa bultzatzen saiatuko gara eta klasean irakurketa-tailer antzekoa antolatuko dugu, bide batez. Ikasturte honetan zein liburu irakurri eta ikaskideen arteko liburu-
-trukaketa zelan egin erabaki eta arautu beharko dugu.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen aurkezpena (6. or.)

A.

IRAKURTZALETASUNA

- Inkesta eta mahaingurua: zer eta zenbat irakurtzen dugu? nolakoa da irakurle estandarra?
- Irakurtearen zailtasunak: ondo irakurtzeko aholkuak (8. or.)

MINTZ/IDAZ

B. LITERATUR LIBURUEN MAILEGU- -ZERBITZUA MARTXAN

- Barrenet: irakurtzale-elkartearen arauak
- Literatura ikasteko erabili: mailegu-zerbitzua arautu
 - Araudia idatzi (13. or.)

MINTZ/IDAZ

IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

(16. or.)

ATAZA: IRAKURTZALETASUNA

Ataza honetan, zeure irakurtzeko ohiturez gogoeta egiten eta zeure irakurle-profilaren ezaugarriak bereizten lagundu nahi dizugu. Garbi dago irakurketa oso atal garrantzitsua dela ikaskuntzaren munduan eta euskara-ikasleok ere horretaz ohartu eta irakurketari etekin didaktikoa ateratzen ahalegindu beharko zenuketela.

1

- Hasteko, Bertatik Bertara telebista-saioak Tolosan irakurtzaletasunari buruz egindako inkestatxoa ikusiko duzu. Horren bidez, zera jakin nahi izan dute: zenbat irakurtzen dugun euskaldunok; mesanotxean zenbat liburu ditugun; irakurtzen ditugun...
- Erreparaiezu erantzunei eta jaso itzazu beheko koadroan.

Zer eta zenbat irakurtzen dugu?

Izenburua gogoratzen dute? bai/ez	Irakurtzen dute?	Generoa	Zenbat?	Euskaraz ala erdaraz?



- Orain egin iezaiozue elkarri inkestatxo berbera.
- Ondoren, pentsatu puntu hauetatik:
 - Asko ala gutxi irakurtzen duzue? Zer da asko/gutxi irakurtzea?
 - Zein literatur genero duzue gogokoen? Zergatik?
 - Liburu-mota berberak irakurtzen dituzue euskaraz eta erdaraz?
- Berdin irakurtzen duzue bi hizkuntzetan? Azaldu

2

Irakurketaren gaineko gogoeta: mahaingurua

- Orain, nolako irakurlea zaren zehazten saiatu behar duzu. Ondorengo zerrendan hainbat baieztapen aurkituko duzu, irakurtzerakoan izan ohi ditugun ohitura, joera, arazo, eta abarrei buruzkoak. Zure lana baieztapenak banan-banan aztertu, eta zuri gertatzen zaizunarekin bat datozen erabakitzea izango da. (Norberaren profila izeneko zutabean “bai” edo “ez” ipini behar duzu.)



BAIEZTAPENAK	NORBERAREN PROFILA		IRAKURLE ESTANDARRAREN PROFILA	
	BAI	EZ	BAI	EZ
1. Irakurleok erosten ditugun liburu guztiak irakurtzeko joera izaten dugu.				
2. Gutako askok ez du liburu bat bera ere irakurtzen urte osoan.				
3. Aisialdirako nahiago ditugu, aukeran, entretenimendu: "pasiboak" (musika entzun, telebista ikusi).				
4. Telebista irakurketaren etsaia da, denbora kentzen digu eta.				
5. Gaur egun, batez ere, helburu ludikoarekin irakurtzen dugu, hau da, ondo pasatzeko.				
6. Askotan literatur liburuen zatiak baino ez ditugu irakurtzen.				
7. Kasu gehienetan gutxi irakurtzen dugu gutxi ulertzen dugulako.				
8. Liburu batek gustura uzten gaituenean, aseta geratzen gara eta ez dugu denbora luze batean beste ezer irakurtzeko gogorik izaten.				
9. Musika asko entzuten dugunok denbora gutxiago daukagu irakurtzeko.				
10. Literatura ondo pasatzeko irakurtzen dugu, besteren esperientziaren berri izan eta zoriontsuago izateko.				
11. Autorea ezagutuz gero, gusturago eta errazago irakurtzen dugu.				
12. Literaturaren alderdi estetiko-ludikoa interesatzen zaigu, ez testuen azterketa linguistikoa.				
13. Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta joera handiagoa daukagu testu errealistak irakurtzeko.				



BAIEZTAPENAK	NORBERAREN PROFILA		IRAKURLE ESTANDARRAREN PROFILA	
	BAI	EZ	BAI	EZ
14. Gizonezko/emakumezkoen irakurtzeko gustuak gizarte-rolkin lotuta daude, adibidez, gizonek rol konpetitiboagoa dutenez, ekintza-nobelak aukeratzen dituzte.				
16. Badaude klasiko batzuk derrigorrez irakurrita eduki behar ditugunak, adibidez, El Quijote.				
15. Aukera egiterakoan asko begiratzen diogu liburuaren itxurari (lodia, letraren neurria, irudiak, etab.).				
17. Liburuak ukitu eta lehendabiziko orriak irakurrita bakarrik ezin dugu informazio asko atera liburuari buruz.				

- Ondoren, ETBn gai horretaz egindako solasaldi baten zenbait pasartekin egindako montajea ikus-entzungo duzue. Aurreko puntuan hizpide izan ditugun puntu berberak agertuko dira aditu horien komentarioetan ere. Esaten dituzten gauza guztiak aintzat hartuta, gaur egungo irakurle estandarren gutxi gorabeherako profila osatzen ahaleginduko gara.

Itzul gaitzen, beraz, lehengo baieztapenetara, eta, ea bideo-pasartea ikus-entzun ahala, bigarren zutabea betetzen duzuen, irakurle estandar horren ezaugarriak ondo islatzen dituztenetan “bai” ipiniz, eta besteetan “ez”.

- Bukatzeko, konpara itzazu bi zutabeak (norberaren profila/irakurle estandarren profila) eta, deigarrienak iruditzen zaizkizun puntuak kontuan hartuta, bizpahiru esalditxo idatzi, konklusio gisa.

1. _____
2. _____
3. _____

3

- Ekar dezagun gogora berriro mahainguruan esandako hau: Kasu gehienetan gutxi irakurtzen dugu, gutxi ulertzen dugulako .

- Gauza bera gertatzen zaizu? Egin ezazu izaten dituzun zailtasunen zerrenda.

Adib. euskal kulturari buruzko aipameneak argumentuaren haria galarazten didate

- Irakurle denok erabiltzen ditugu trukoak hobeto ulertzeko irakurtzean. Hizkuntz ikasle hauentzat ere premiazkoak dira. Irakur ezazu zertaz baliatzen diren ulermen-zailtasunei aurre egiteko.

Nire ulertzeko teknika hau da: lehendabizi globalitatean ulertzen ahalegintzen naiz. Horrela ulertu ondoren, hobeto erreparatzen diet forma batzuei euren testuinguruan, hobeto ulertzeko edo zelan erabiltzen diren ikusteko.

Irakurtzen dudanean, lehenengo izenburuari eta argazkiei edo grafikoei... begiratzen diet, horrela badakit gutxi gorabehera zeri buruz arituko den. Hau da, ideia batekin hasten naiz irakurtzen, eta horrela errazago ulertzen dut.

Ni honetaz konturatu naiz: gai zenbat eta ezagunagoa izan, hobeto ulertzen dudala. Horregatik, orain gai desberdinen inguruko informazioa edukitzen saiatzen naiz.

Hitz edo formaren bat ulertzen ez dudanean, beti saiatzen naiz deduzitzen. Horretarako, egoera eta testuinguru linguistikoa hartzen ditut kontuan. Hau da, hitza ulertzeko pista bilatzen ditut.


Behar-beharrezkoa dut testuinguru esanguratsua, bestela ez dut ezer ulertzen.

Lehen zera uste nuen: irakurtzea bakarkako lana zela. Orain, aldiz, taldeka ere egin daitekeela konturatu naiz. Sarritan, hobeto ulertzen laguntzen dit ikaskideen arteko lan horrek.

Zerbait irakurtzen dudanean, ez diet ulertzen ez ditudan berba guztiei erreparatzen, ulertzeko garrantzitsuak direnei bakarrik. Irakurri dudana ulertzen ez badut, ordea, galdetu edo hiztegia begiratu egiten dut.

- Eta zuk erabiltzen al duzu horrelako estrategiaren bat ulertzeko? Zein? Eta besteren bat?

- Azkenik, komenta ezazue ikastalde osoaren artean eta idatzi



ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO ESTRATEGIEN ZERRENDA

A large grid area for writing, with a decorative scalloped left edge and a dark blue border. The grid is composed of light pink lines on a white background.

ATAZA: LITERATUR LIBURUEN MAILEGU-ZERBITZUA MARTXAN

Badakizu nolako irakurlea zaren, eta baduzu irakurtzean erabili ohi diren trikimailuen berri ere. Ea horrek guztiak literatur lanak irakurtzea gustagarri edo gustagarriago egiten laguntzen dizun. Zenbat liburu irakurriko ditugu ikastaro honetan? Onena mailegu-zerbitzua antolatzea izango dugu, hau da, irakurritako liburuen gaineko iritzia nola trukatu, irakur-fitxetan zer jaso, etab.

1

Internetek ere ematen du horrelako zerbitzuak antolatzeko aukera. Hainbat elkarte sortu dira martxan daukagunetik. Bideoan ikusiko dituzun bi lagun horiek irakurtzale-elkarte baten araudian barrena nabigatzen ari dira. Esaten dutena entzun baino lehen, irakur itzazu elkarte horretako arauok:

HAMMAN KOMUNeko LITERATUR ELKARTEAREN ARAUDIA:	E	G
1. Ezinbestekoa da euskalduna izatea.		
2. Irakurritakoaren berri eman ez kontrol-fitxa betetzea nahitanahiezkoa da.		
3. Idatziko diren pasarteak, edozein hizkuntzatan daudelarik ere, derrigorrez euskaratuko dira.		
4. Elkartekideen gomendatzen dituzten liburuak ez dira irakurtzeko zailak izango.		
5. Hileko bi liburu gutxienez irakurri beharko dira.		
6. Hamman Komuneko Literatur Elkartearen beste betebeharrak bat idaztea izanik, irizpide jakin baten arabera aukeratuko dira liburuetakoko pasarteak.		
7. Ingelesez idazten jakin behar da.		
8. Elkartekide izateko beharrezko adina 18tik 99 urtera bitartekoa da.		
9. Gaia poesia sozialera mugatuko da.		
10. Luzaezina da liburu-maileguaren epea: 15 egunekoa, asko jota		

Horiek guztiak, halere, ez dira egiak. Bideoa ikusi eta gero esan beharko duzu zeintzuk diren benetakoak eta zeintzuk ez.



2

- Lehendabizi, taldeka bilduta, lehenengo araudi-proposamena prestatuko duzue. Araudi-proposamen hori idatziz aurkeztu beharko da.
- Bukatutakoan, taldeok eskemako puntu bakoitzaren inguruan hartutako erabakiak azaldu eta eztabaidatuko ditugu.
- Eta, azkenik, formularik egokiena guztion artean adostu eta behin betiko araudian jaso. Hurrengo fitxa izango duzu horretarako lagungarri.

MAILEGU-ZERBITZURAKO ARAUDIA.

1. Nola lortu liburuak?

- Zenbat liburu erabiliko ditugu mailegu-zerbitzuan?
- Nola lortuko ditugu? Formularen bat bilatu.

- erosi
- etxetik ekarri
- euskaltegikoak erabili
- herriko liburutegikoak
- etab.

2. Nork egingo du liburuen aukeraketa?

- ikasleek
- irakasleak
- batzuk irakasleak, beste batzuk ikasleak...

3. Liburuaren fitxan zein datu ipiniko ditugu (egilea, orrialde-kopurua, sinopsia...)? Presta ezazue fitxa erdua. (Adibidea* aztertu)

IDAZLEA:
 IZENBURUA:
 Lib. erref.
 ARGITALETXEA:
 NEURRIA: ORRIALDEAK:
 GAIA: URRATSA:

4. Mailegu-sistemaren funtzionamendua:

- 4.1. Zenbat denborarako egingo dira maileguak? Prorrogak? Zigorak?
- 4.2. Irakurri ostean ikasleek egin beharreko lana zehaztu (iritzi-fitxa, laburpena,...)
- Ikusi eta aztertu adibidea

IRITZI-TXARTELA

IZENBURUA: Jimy Potxolo

- ← → +

	1	2	3	4	5
	urrat. zailt. inter. atseg.gomen				
1. irakurlea	3	3	3	4	4
2. irakurlea	4	4	4	4	4
3. irakurlea	4	3	3	4	4
4. irakurlea	3	3	4	2	4
5. irakurlea	4	3	3	4	4
6. irakurlea	3	4	4	4	5
7. irakurlea	4	4	3	4	4

* Legazpiko Udal Euskaltegia

4.3. Ikasturtean zehar irakurri beharreko liburuen gutxieneko kopurua zehaztu.

4.4. Arduradunik behar den erabaki. Zein eginkizun izango lituzkeen zehaztu.

Aztertu adibidea

Atxaga Bernardo		egilea	
"Jimmy Potxolo"		izenburua	
Erref. zenb.			
Urratsa	Irakurlea	Noiz eramana	Noiz itzulia
3.	Laura Nuñez	93/09/20	93/03/30
4.	Marian García	93/04/02	93/04/15
4.	M Angeles Vazquez	97/04/16	93/04/22
4.	Mikel Mendez	93/04/22	93/05/05
4.	Yolanda Glez.	93/05/10	93/05/25
4.	Lourdes García	93/05/26	93/05/30
3.	Resu Lobo	93/06/02	93/06/12

4.5. Liburuen zainketari buruzko oharrak (forratu behar diren ala ez, etab.)

4.6. Liburuen kokapen fisikoa (non egongo dira liburuak?).

4.7. Ikasturtean zeharreko jarraipena nola bideratu.

5. Esperientziaren ebaluazioa nola egin: (norberaren ebaluazioa/ taldearen ebaluazioa)

6. Amaierako likidazioa. Esperientziaren amaiera (zer egin liburuekin).



1. AUTOEBALUAZIO-ORRIA


- Ondoko baieztapenon bidez ikastunitatearen helburuak zenbateraino bete dituzun aztertuko duzu. Esaldi bakoitzari ipin iezaiozu zenbaki bat, zerotik hamarrera, ados zauden ala ez azalduz. (Erabat ados bazaude, hamar puntu, eta zeharo kontra bazaude, berriz, zero puntu).

	0-10
1. Garbi ikusten dut orain zergatik komeni zaidan literatur testuak irakurtzea.	
2. Orain hobeto dakit nolako irakurlea naizen.	
3. Gutxi gorabehera badakit ikaskideen gustuak eta zaletasunak zein diren.	
4. Ulermen-arazoak gertatzen direnean badakit nola jokatu, zein trikimailu erabili eta abar.	
5. Lehen baino motibatuago nago literatur testuak irakurtzen hasteko.	
6. Orain pittin bat gehiago dakit euskal literaturari buruz.	
7. Irakurritako testu baten gaineko iritzia ematen eta interpretazioak eztabaidatzen ikasi dut.	
8. Araudiak idazten ikasi dut.	


- Bil zaitzete (hirunaka edo launaka) eta komenta itzazue puntu guztiak. Talde osoan komentatu nahi izanez gero, berriz, esaiozue irakasleari.



HABE
Herriaren Abuztuaren eta Demokraziaren Erakunde Autonomoa



ISBN 84-86968-70-4



9 788486 968700